

**AA APLIKATUAREN EUSKADIKO KONGRESUA**
CONGRESO IA VASCA APLICADA
AppIAI

2024-05-15 Zamudio 15-05-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, herri agintari eta herri ordezkariok, Basque Artificial Intelligence Center-eko arduradun eta kideok, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko lehen kongresu hau antolatzeagatik eta bertan parte hartzeko aukera emateagatik.

Adimen Artifiziala etorkizuneko erronka nagusienetako bat izango da. Erronka guztiek bezala, aukera berriak irekiko dizkigu. Baita adi egoteko arrazoiak eman ere.

Egia da: teknologia berriek beti sortzen dute gugan nolabaiteko urdurasuna. Ezjakintasunak gure burua babestera eramaten gaitu.

Adi egon behar dugu, bai. Ezin dugu gure burua izkutatu eta arriskurik ez dagoela pentsatu.

Baina horrekin batera, teknologia berriek zerbait ekarri digute ere: ate berrien irekiera. Argi dugu gure bizitzaren kalitatea hobetzen dutela eta ekarpen hori jarri behar dugu erdigunean.

Eusko Jaurlaritzak aspaldi ikusi zuen Adimen Artifizialaren esparruan urratsak ematea ezinbestekoa zela. Eta, duela bost urte, Basque Artificial Intelligence Center martxan jarri genuen, euskal enpresa ehunarekin batera.

Lankidetzeta publiko-pribatuaren adibide garbia da: Enpresak, Startup-ak, Hornitzaileak, Ezagutza-eragileak, Erakundeak eta Jaurlaritza elkarlanean.

Denok etorkizuneko erronka honi aurre egiteko eta aurre hartzeko lanean. Denok gure herriaren aurrerabidearen alde lanean.

BAIC nació con el ambicioso objetivo de liderar el avance de la Inteligencia Artificial en Euskadi.

Promueve la innovación, el desarrollo tecnológico y la adopción de prácticas éticas para mejorar la competitividad empresarial y el bienestar social de nuestro país.

En otras palabras: identifica y aprovecha las oportunidades que nos brinda esta tecnología para ponerla al servicio de nuestra sociedad.

Este Congreso supone un hito en este sentido.

Nuestra misión es acelerar la implantación de la Inteligencia Artificial para potenciar nuestra industria y seguir posicionando Euskadi como un referente internacional en este campo.

Si queremos que nuestra industria siga siendo competitiva, si queremos que siga generando riqueza, es imprescindible que se reinvente cada día. Gracias a BAIC y a todas las personas que formáis parte de esta iniciativa, Euskadi mejora y va a seguir mejorando cada día.

Subrayo un objetivo adicional, orientado a la sociedad. Todo este trabajo debe ir acompañado de una adecuada divulgación. Porque somos conscientes de que parte de la sociedad continúa percibiendo la Inteligencia Artificial como algo desconocido o, peor aún, como una amenaza.

Por eso es fundamental incidir en la labor informativa y divulgativa a la ciudadanía. No podemos olvidar que cada persona debe entender la importancia de seguir apostando por la innovación y el desarrollo, también por la Inteligencia Artificial.

Horregatik guztiagatik, Ikerketan aritzen zareten profesional guztei gure aitortza eta babesa. Segi irekitzen ari zareten bide honetan aurrera eginez.

Eusko Jaurlaritza eta erakundeetatik argi dugu bide horretan aurrera egiten jarraitu behar dugula. Bidelagun izango gaituzue. Izan ere, elkarlana behar-beharrezkoa izango dugu, bai erronka honetan eta, baita, etorkizunean etorriko zaizkigun guztietan ere.

Eskerrik asko eta jardunaldi oparoa izan dezagula denok! Ondo izan!